

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Jendaurrean jartzea Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga ordaindu behar dutenen 2021eko errolda

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren errolda, 2021eko, egin denez gero, jendaurrean jartzen da, interesdunek egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten. Horretarako, hamabost egun baliodun izango dituzte iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Interesdunek udaletxeko idazkaritzan dituzte eskuragai agiriak jendea hartzeko orduetan.

Epe hori igarota, erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartuko da.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Arespalditza, 2021eko otsailaren 4a

Alkate-lehendakaria

GENTZA ALAMILLO UDAETA